

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremanen motibazioak hauek dira:

- Bezeroak edo kontsumitzaileak lortzea, proiektu berria delako.

Eta hori lortuta:

- Salmenta kopurua handitzea.

Konbinazio bat egingo dugu: zerbitzu automatizatua, sortuko dugun webgunearen bitartez eta zerbitzu pertsonalizatua, lokal batean salduko ditugulako.

Gure teknikariak sortuko duen webgunearen bidez bezeroek online erosteko aukera izango dute, baina bidaltze-gastuak ordaindu beharko dituzte. Zalantzarik egotekotan, webgunean txertatutako telefono zenbakira deitu ahal izango dute, gurekin harremanetan jarritz.



Gurekin harremanetan jartzeko eta gure produktua erosteko bigarren aukera hau da. Denda batekin akordio bat egingo dugu eta bertan saltzeko baimena izango dugu, irabazien %25 beraiei emanaz.

